

# Getxo

## EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA

## IRAILAK **16-22**

Getxo bizi ezazu ▸ Ingurumena Medio Ambiente

www.getxo.eus/eu/medio-ambiente-movilidad/movilidad

Europako Mugikortasun Astea ospatuko du Getxoko Udalak **irailaren 16tik 22ra** bitartean. 2023ko leloa "Konbinatu eta mugi zaitez!" izango da. Europako Mugikortasun Astearen XXII. edizioaren bidez, mugikortasun aktiboaren, garraio publikoaren eta beste garraio-aukera garbi eta adimendun batzuen (esaterako, mugikortasun elektrikoa) aldeko jarrera-aldaketak sustatu nahi ditugu.

Udalak hainbat jarduera diseinatu ditu herritar guztiek ekimenarekin bat egin dezaten. Aurreko urteetako hainbat jarduera errepikatuko ditugu aurren, arrakasta handia izan zutelako. Adibidez, "Ikasi pedalei ekiten" edo "Bizikleten elektrifikazioa". Beste batzuk, ordea, berriak dira: "BAT puntua", "Ibilbidea uretako bizikletaz", "Skate tailerra" edo "Eskola Bideak", besteak beste.

**Irailaren 17an**, europar ekimen honen jatorria den Autorik gabeko Eguna ospatuko dugu. Data hori dela eta, umeentzako hainbat jarduera eta jolas antolatu ditugu Getxon, herriko elkarte eta klubekin elkarlanean.



LARUNBATA 16
GETXOKO KIROL PORTUA
11:00etatik 13:00etara

Txandak: 40´

IZEN-EMATEA

### IBILBIDEA URETAKO BIZIKLETAZ

Probatu itsasoan modu jasangarri eta ekologikoan mugitzeko modu dibertigarri bat. Hainbat ibilbide diseinatu ditugu uretako bizikletaz egiteko, itsasoaz iraunkortasunari uko egin gabe goza dezazun. Primeran ibiliko zara aire zabalean, ariketa fisikoa egiten duzun bitartean.



LARUNBATA 16
ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA
11:30etatik 15:00etara

### BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN MERKATUA

Zure bizikleta saldu edo bigarren eskuko bat erosi, baita mugikortasuna errazten duten beste produktuak ere (patineteak, patinak, osagarriak…). Ez dira 350 €-tik gorako prezioak onartuko. Salgaien jabeek erabakiko dute salmenta-prezioa; hala ere, merkatu honen helburua ez da irabaziak egitea, Getxon berrerabilpena eta bizikletaren erabilera bultzatzea baizik.

OSTIRALA 22
SANTA EUGENIA PLAZA
17:00etatik 20:00etara

IZEN-EMATEA

### BAT PUNTUA
**(Bizikleten Azterketa Teknikoa)**

Ekarri zure bizikleta! Konponketa-euskarrian jarriko dugu, eta gurpilak (ganbera-aldaketa barne), balaztak, aldagailua eta presioa berrikusiko ditugu.

OSTIRALA 22
AREETAKO SKATE PARKEA
18:00etatik 20:00etara

IZEN-EMATEA

### SKATE: HASTAPEN- EDO TEKNIFIKAZIO-SAIOAK

Skater profesionalek emandako saioak. Jarduera ezin hobea da skatean lehen urratsak egiteko edo jada duzun teknika hori hobetzeko, zure adina edozein dela ere.

**i IZEN-EMATEAK:** Telefonoz: 605 74 90 64 (lanorduetan). Posta elektronikoz: getxomovilidad@gmail.com (aukeratutako jarduera, izen-abizenak eta telefono-zenbakia adierazita). Jarduera guztiak doakoak dira.

# MUGIKORTASUN ASTEKO JARDUERAK

## LARUNBATA 16



### IBILBIDEA URETAKO BIZIKLETAZ

**IZEN-EMATEA**

**11:00etatik 13:00etara - GETXOKO KIROL PORTUA**

Deskonektatu egunerokotik eta bat egin naturarekin modu jasangarrian.

### IBILKETA NORDIKOA (HIRIAN ZEHAR)

**10:00etatik 12:30era - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA**

**IZEN-EMATEA**

Tailerra eta ibilketa nordikoa Getxon zehar.

### BIZIKLETEN MERKATUA



**11:30etatik 15:00etara - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA**

Zure bizikleta saldu edo bigarren eskuko bat erosi, baita mugikortasuna errazten duten beste produktuak ere (patineteak, patinak, osagarriak…).

### JAUREGIEN IBILBIDEA

**IZEN-EMATEA**

**20:00etatik 21:30era - BIZKAIA ZUBIA**

Oinezko ibilbidea, Getxoko etxetzarrak eta jauregitxo handientsu hauek ezkutatzen dituzten misterioak ezagutzeko.

## ASTELEHENA 18

**IZEN-EMATEA**



### BIZIKLETAK ELEKTRIFIKATZEKO

**18:00etik 20:00etara - ROMO KULTUR ETXEA**

Ikastaro honetan elektrifikazio-kit bat instalatuko dugu bizikleta arrunt batean.

## ASTELEHENA 18 - ASTEAZKENA 20

### IKASI PEDALEI EKITEN

**IZEN-EMATEA**

**18:00etatik 19:00etara - EVARISTO TXURRUKA KAIA**

Bizikletan ibiltzen erakutsiko dizugu! Helduei bizikletak utziko dizkiegu. Haurrek, berriz, 8 urtetik gorakoak izan beharko dute, eta haien tamainako bizikletak ekarri. Kaskoa nahitaezkoa izango da 16 urtetik beherakoentzat.



## ASTEAZKENA 20

### E-BIKEN PROBA. AURKITU HOBEKIEN EGOKITZEN ZAIZUN BIZIKLETA ELEKTRIKOA.

**18:00etatik 20:00etara - BIZKAIA ZUBIA**

Ez dakizu zer bizikleta elektriko mota behar duzun? Zatoz gure ebike-flota probatzera. Hainbat adituk lagunduko dizute zuri.

## OSTEGUNA 21




### GETXOKO BIZIKLETA FLOTA BERRIA

**18:00etatik 20:00etara - AREETAKO GELTOKIA PLAZA**

GETXOBIZI bizikletaz mugitzeko sistema berri bat da, jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena. Ez galdu udalerriko ebike-flota berria probatzeko aukera. Gainera, zerbitzuari edo izen-emateari buruzko zalantza guztiak argituko dizkizugu.



**IZEN-EMATEA**

## OSTIRALA 22

### BAT PUNTUA (BIZIKLETEN AZTERKETA TEKNIKOA)

**17:00etatik 20:00etara - SANTA EUGENIA PLAZA**

Ekarri zure bizikleta BAT puntura. Goitik behera berrikusiko dugu, pedalei segurtasunez eragin diezaiezun.

## OSTIRALA 22

**IZEN-EMATEA**



### SKATE: HASTAPEN- EDO TEKNIFIKAZIO-SAIOAK

**18:00etatik 20:00etara - AREETAKO SKATE PARKEA**

Skater profesionalek emandako saioak. Jarduera ezin aproposagoa da skatean lehen urratsak egiteko edo jada duzun teknika hori hobetzeko.




# GETXOKO ESKOLA BIDEAK MARRAZKI-LEHIAKETA

Getxon lanean ari gara udalerriko haurrak eskolara oinez eta lagunartean joan ahal izan daitezen, haien autonomia pertsonala sustatzeko. Horregatik, liburuxka bat banatuko dugu Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen artean, eskolarako bideei buruzko informazioa eta jokoak jasotzen dituena. Atzealdean, marrazki-lehiaketan parte hartzeko marrazketa-eremua aurkituko dute. Ikastetxe bakoitzak marrazkiak jasoko ditu, eta Ingurumen Arloko kideek osatutako epaimahai batek irabazlea aukeratuko du. **SARIA: Patinete elektriko bat.**

# IGANDEA 17

## AUTORIK GABEKO EGUNA OSPATZEN

**IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ETENAK ALGORTAN ETA AREETAN: 08:00ETATIK 20:00ETARA**

### TELLETXE KALEA (ALGORTA)
### KALE NAGUSIA (AREETA)

**JARDUERAK: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara**

Bi kaleak oinezkoentzat izango dira egun batez, eta hainbat jarduera antolatuko ditugu haietan familiarekin primeran pasatzeko.
**Ohe elastikoak, kart eta minimotoen zirkuituak, skate-tailerra, mahai-tenisa... eta sorpresa-mordoa.**
**Hori guztiaz gain, honako elkarte, GKE eta talde hauek bat egingo dute Autorik Gabeko Egunarekin hilaren 17an, igandean (mila esker ekimenean parte hartzeagatik):**

- **ASEBIER** (Euskadiko gaixotasun arraroen elkartea: arantza bifidoa eta hidrozefalia)
- **SAREKIDE** Getxo. Getxoko Boluntariotza erakundeen elkartea.
- **GETXOKO XAKE KLUBA**
- **GETXOKO GURUTZE GORRIA**
- BIZKAIKO **ASPERTXU ASPERGER EAN** elkartea
- **Getxoko ERRITMIKA kluba** (gimnasia erritmikoa)
- **ASPANOVAS** Bizkaia (minbizia duten haur eta nerabeen elkartea)
- **Getxoko LOS CHOPOS** mahai-tenisa elkartea
- **GETXO SHOW** Patinaje Kluba
- **DYA BIZKAIA**
- **APNABI** Autismo Bizkaia elkartea

**IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ETENAK ALGORTAN ETA AREETAN.** Irailaren 17an, igandea, 8:00etatik 20:00etara, ibilgailu pribatuen zirkulazioa eta aparkamendua mugatuta egongo da Algorta eta Areetako erdiguneetako hainbat kaletan. Garajeetatik ibilgailuak ateratzea bakarrik baimenduko da kale hauetan. Murrizketek ez dute eraginik izango garraio publikoan, ez Getxoko Udalaren aldez aurreko baimena duten establezimenduetako ibilgailuetan. Eskaerak: ingurugiroa@getxo.eus. Mesedez, kendu ibilgailua aipatutako kaleetatik antolatutako jarduerak ez oztopatzeko. Garabiak gune hauetan aparkatuta dauden ibilgailuak kenduko ditu.




